



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko



adeitsu begirunezkoa, errespetuzkoa	Gure lehenengo bidaiako marinel atsegin, adeitsu eta esanekoa zen berriz ere.	154
adore-plantak kementsu itxurak	...Silverri begira eta adore-plantak egiten; baina bihotza erabat etsita nuen.	131
aiene erosta, kexuzko oihua	Aulkiak eta mahaia biraka, ezpaten talken hotsa, eta, gero, aiene lazgarriak.	21
aingura itsasontzien euskarria	...sei matxinoei eraso egin, aingura jaso eta itsaso zabalera joko genuen.	81
aitortu konfesatu, egia kontatu	Hemen zaudenez, gauza bat aitortuko dizut.	131?
aitzakia estakurua, desenkusa	Bata bestearen atzetik, aurretik igarotzean agur bat egin eta, aitzakiaren bat emanez, hitz egin zuenaren atzetik joaten hasi ziren guztiak.	134
aizto ganibeta, labana	Berehala gelditu zen, eta, listua irentsiz, hau esan zuen aiztoa ahotik aterata...	124
akuarela urmargoa, margo mota	...Lloyd Ousborne, hamahiru urteko nerabe egonezin eta pinturazalea, uharte baten marrazkia akuarelaz margotzen ari zen.	7
aldaka mehaka, gerri aldea, kadera	Ezkerreko zangoa aldakatik hurbil moztuta eta ezkerreko sorbaldaren azpian makulu bat izan arren...	45
almirante itsas armadako burua	Ni almirantea izango naiz.	38
amarru azpikeria, trikimailua	— Baietz zital horren amarruren bat izan!	97
amen batean oso arin	...bururatu zitzaidan neu ere lehorrera joatea, eta, amen batean itsasontzitik irristatu eta hurbilen izan nuen txaluparen aurrealdean ezkutatu nintzen.	70
ameskeria txakur-ametsa, fantasia	Baina benetako gauza bitxia eta tragikoa geroago gertatu zitzaigun; nire ameskerietan ere ez halakorik gertatu.	41
amore emate errendizioa	— Hori da nire lehenengo amore ematea .	142
amorru haserre bizia, errabia	...itsuak aginduak ematen jarraitu zuen, lehen baino ozenago, egonezinak eta amorruek erreta balego bezala.	31
anker krudela, odoltsua	Beldurgarrienak itsaslapurraren istorioak ziren; urkatuei, [...] eta Karibeko gertaera ankerrei buruzko kontakizun izugarriak.	17
antzina aspaldi	Bestela hilda egongo nintzen antzina .	114
apar bitsa, haguna	... aparrak behin eta berriz bustitzen ninduen...	112
apatx apoa, animalien behatza	Itsu gaiztoak oihu lazgarria egin zuen, zaldiaren lau apatxak ginetik pasatu zitzaizkionean.	34
arakatu ikertu, miatu	Bill hilda dago! Araka dezala batek.	32
arpilatu ondasunak harrapakatu, sakeatu	...itsa Sontziei ez ezik hiriei ere eraso egin eta arpilatu egiten zituzten.	9
arrakalatu pitzatu, arraildu	Eskuak arrakalatuta eta orbainez beteta, eta azazkal beltzak eta apurtuak zituen...	13
atoian tiraka	...txalupak jaitsi eta itsasontzia atoian eraman beharra izan genuen hiruzpalau miliatan...	68
atximur egin imurtxi edo piltxika egin	Ez ahaztu nire hitzak: «Askoz konfiantza handiagoa» esan behar diozu, «askoz handiagoa», eta, gero, atximur egiozu .	93
azkazal atzazala	Eskuak arrakalatuta eta orbainez beteta, eta azkazal beltzak eta apurtuak zituen...	13




bahituta gatibu, harrapatuta	Mutila bahituta dugu eta gure azken aukera izan daiteke.	137
balentria ausarkeria, ekintza heroikoa	Oholesira bueltatzea eta nire balentria azaltzea baino ez nuen gogoan.	126
berotuta sutsu, sumintzen hasita	—Orduan gauza pare bat esan behar dut —esan nuen nik, ordurako nahiko berotuta ...	132
birao araoa, juramentua, maldizioa	Birao izugarria bota eta errenka joan zen...	100
branka itsasontziaren aurrealdea	Brankako irudirik zoragarrienak ikusten nituen.	44
dardar egin ikarak sentitu	Dardar egin nuen, bat-batean, eta dardara horrek konpondu zuen arazoa.	125
desertatu armadatik ihes egin	Neu naiz, Smollet kapitaina. Mutil gaixo horiek kapitain izendatu ninduten desertatu ondoren, jauna...	98
dingilizka dilindan, zintzilik	Hala ere, dingilizka ikusten nuen neure burua.	132
dobloi txanpon espainiarra	Hauxe da iparrizarrera eta zorioneko dobloietara eramango gaituen orratza.	146
doilor pertsone txarra, bilaua	Sei doilorrak brankako gazteluan zeuden, oihal baten azpian.	81
eraile hiltzailea	...atzean, eraileak zeuden, eta, aurrean, zelatan zegoen izaki hura.	75
erein hazia ipini (lurrean)	Erein duzuna biltzen ari zara.	140
erreal dirua	Eta loroak “zortziko errealak! , zortziko errealak!, zortziko errealak!” esaten zuen behin eta berriz.	54
eseki eskegi	Esekita izango du, beharbada xuxurlatu zuen amak.	29
estereotipo eredu finkatua	Altxorraren uhartea eleberririk meritu handia du, literatura estereotipo hau sortu zuen...	9
estropezuka tupust eginez	...barrurantz abiatu nintzen korrika eta estropezuka , saltoak emanez, makurtuz, gehiago ezin izan nuen arte.	70
etsi amore eman, galdutzat eman	...aurpegira begira eta adore plantak egiten; baina erabat etsita nuen.	131
eutsi oratu, indarrez heldu	...lur jabea kapitainari eusten ari zen.	104
ezizen izengoitia, seudonimoa	...Daniel Defoe egon zitekeen ezizen horren atzean.	9
ezponda muna txikia (<i>desnivel</i>)	...ez nintzen gauza izan neure tokian gelditzeko, eta ezpondan gora igo nintzen.	31
ezusteko ustekabea, sorpresa	Ezusteko pozgarria, bai horixe, John zahararentzat!	128
fardel paketea	Jende, orga eta fardel askoren artean ibili nintzen eta, azkenean, aurkitu nuen tokia.	45
gailendu nabarmendu	Noizean behin, beste espezie bateko beste zuhaitz garaiago bat gailentzen zen...	144
galbideratu bide gaiztora joan	...eta elkarrizketa hura, berriz, itsasontziko azken marinel leialetako bat galbideratzeko baino ez zen izan.	59
ganbera traste gela	Hispaniolako ganberan , behar ziren armak, munizioak, jatekoak...	82



geriza errainua, itzala	Traizioaren geriza ikusten nuen haren begietan...	120
girgilu katedun burdinazko lokarria	Ondo dago, horrela ez diogu girgilurik ipini beharko.	54
goibel triste, atsekabetuta	Egun hartan, aita oso goibel zegoen, eta giro baketsua behar zuen.	23
goleta belaontzi arina	...Hunter arraunlari ona zen, eta hegan egin genuen uraren gainean, goletara iritsi ginen arte.	82
gori bero-beroa (<i>ardiente</i>)	Aiztoak burdin goria balitz bezala erretzen ninduen...	125
gorpuzkera fisikoa	Lehenengoz ikusten nuen jaun hura hain hurbiletik. Gizon garaia eta eta gorpuzkera onekoa zen...	35
gurutze itsasontzien mastako plataforma	...eta ez nuen arnasarik atera gurutzean eseri arte.	124
haize-oihal bela	Neure begiekin ikusi ditut haren haize-oihalak .	36
haizebeko haize kontrako aldea (<i>sotavento</i>)	Horrela, txopako bizkarreko haizebeko aldea ikusi ahal izan nuen.	117
halabeharrez behartuta, ezinbestean	Kaian nengoen, eta, halabeharrez , berarekin hasi nintzen hizketan.	43
harkaitz haitz handia	Gauetz ikusi nuen harkaitz zuriaren bila joango nintzen...	108
harrezkero ordutik, geroztik	Harrezkero , belaunaldi askoren abentura-ametsak sustatu ditu eleberri honek.	8
harrigarri txunditzea	Hala ere, harrigarria zen txalupatxoa uhinen artean nolako segurtasunez eta bizkortasunez mugitzen zen ikustea...	114
haztamuka ukimenaz baliatuz, ikusi barik	Aurrera egin nuen, haztamuka , ez zen ezer ikusten.	128
herrenka koxoka, hanka arrastaka	Silver herrenka zihoan makuluaren gainean.	150
hondarpe barra urpeko harea gunea	...Hands piloto oso ona zela: segurtasunez eta erraz pasatu ginen hondarpeen artean.	122
hornituta gauzez betea	Izan ere, Ben Gunnen kobazuloa ondo hornituta zegoen...	153
hotzikarak izan dardarka egon	Hotzikarak ditut Flintengan pentsatuta bakarrik.	146
huskeria ezerezkeria, txikikeria	...zuentzat, agian, huskeria izango da benetako sendagilea egunero zuek ikustera etortzea.	137
igarobide bidexka, zidorra	eskeleto uhartearen atzeko igarobide estutik joan behar izan genuen ainguralekura	68
ikuskatzaile ikuskari, inspektore	Ikuskatzaile berriak azaldu eta gero, hau esan zuen lur-jabeak...	35
iltzatuta josita, tinko	Ezezaguna iltzatuta geratu zen ostatuko atearen ondoan.	20
inausita kimatu, adaxkak moztu	Kapitainak, bitartean, moztuta eta inausita zegoen izei oso garaia aurkitu zuen.	91
itsasaldi itsasoko bidaia	...lur-jabeak uste baino denbora luzeagoa behar izan zuen itsasaldia prestatzeko.	41
itsasketa nabigazioa	Beharrezko datu guztiak zituen, beraz, marinelen eta itsasketaren mundua zehatz deskribatzeko...	10




itsaslapur pirata	Stevensonek itsaslapurrez , lurpean ezkutaturiko altxorrez eta bertan behera utzitako marinela batez osatu zuen marrazkia.	7
izei zuhaitz mota (<i>abeto</i>)	Kapitainak, bitartean, moztuta eta inausita zegoen izei oso garaia aurkitu zuen.	91
izututa ikaratuta	...hala ere, azken horietako bat izututa zegoen zaurituta baino gehiago...	102
jakingura kuriositatea	...bertan geratu nintzen, dardarka eta adi, beldurrez beterik baina jakingura piztuta.	56
jazo gertatu, agitu	Handik nahiko gutxira, gertaera misterioitsu bat jazo zen...	19
jo suposatu	—Tira –esan zuen berak–, jo dezagun , zerbait esatearren, zure kapitain horrek masailean ebaki bat duela...	20
kai portua	Kaian nengoen, eta, halabeharrez, berarekin hasi nintzen hizketan.	43
kasaka hegal luzeko jaka	...larruzal beltzarana zuen, eta sorbalde-tarainoko mototsa zeraman kasaka urdinaren gainean.	13
ketan tiro egin berri	Une hartan, sendagilea, Gray eta Ben Gunn heldu ziren, zuhaitz artean aterata, mosketeak ketan zituztela.	152
kinatu zirikatu, akuilatu	Planak abentura-usaina zuen; horrek kinatu egin ninduen...	116
kirri brisa	...pinuak kulunkatzen hasi ziren, haien artean zebilen haize kirriaren eraginez.	126
kirten asta, palua	Pikotx baten kirtena ageri zen, hautsita, eta hainbat kaxaren oholak, han eta hemen sakabanatuta.	150
koldar beldurtia, kakatua	—Zoaz zeu, koldar hori! Dirutza duzue esku artean.	33
kolokan zabuka, aldaroka	Salto egin eta berehala, kolokan hasi zen.	26
kontramaisu kapitainaren agindupeko ofiziala	...goleta batean nabigatuko nuen, kontramaisuarekin eta motosdun marinelekin batera.	44
krosko itsasontzien kaskoa	Gero apurka-apurka mastak eta kroskoa agertu ziren...	111
kulunkatu zabuka, alderik aldera	...pinuak kulunkatzen hasi ziren, haien artean zebilen haize kirriaren eraginez.	126
labar itsas ertzeko malda pikua	Astiro-astiro edan zuen, ulertuen eran dastatuz, eta labarretara begira jarraitu zuen.	14
lagatu utzi	...lagunak itsasontzian laga nituen, eta nire aurrean zuhaitzak, animaliak eta hegaztiak baino ez zeuden.	71
lakre argizari estaldura, zigilua	Bi gauza zeuden barruan: liburu bat eta paper bat, lakrez itxita.	37
lauoinka lauhazka, galopan	Lauzpabost zaldizko agertu ziren Ilargiaren argitan, lauoinka aldapan behera.	33
lauso apala, difuminatua	...itsasontzia non zegoen erakusten zuen argi lausoa .	110
lazarri izugarria, urragarria	Aulkiak eta mahaia biraka, ezpaten talken hotsa, eta, gero, aiene lazarriak .	21
lema ontzien gida (<i>timón</i>)	Gero, lema lotu nuen, eta behera joan nintzen nire kuxtaren bila...	120
lemazain ontzi gidaria	...lema gobernatzen duen marinela –erantzun zuen Israel Hands lemazainak .	59



likatsu lirdingatsua, gai bigun eta hezea	Gero, itzelezko munstro likatsuak ikusi nituen...	113
loria ohorea, aintza	Itsasoaren loria , eta ez altxorra, igo zait burura!	43
lorrindu hondatua, lardaskatua	Egia esan, arropa lorrinduak eta hizkera arrunta izan arren...	14
lur jota etsita, gogogabetuta	Lur jota aurkitu nituen guztiak. Lur jabea zurbil zegoen, nolako zoritxarrera eraman gintuen pentsaturik.	82
madarikatu deabru, malapartatu	...sendagile madarikatu horrengana, eta esaiozu gerrarako prestaketa agintzeko...	24
mahuka manga	Sendagileak mahuka urratu zion, eta besaurrean, besteak beste, honako hitz hauek agertu ziren tatuatuta: "Billy Bones".	22
makalik gaixorik, ondoezik	Behin bakarrik egin zion aurre norbaitek; amaierako egunetan gertatu zen, aita makalik zegoela.	17
makilatu jipoitu	...labana gorde eta jarlekura itzuli zen purrustadaka, txakur makilatua bezala.	18
makulu mugitzeko euskarria (<i>muleta</i>)	Inor ausartzen bada, sable bat har dezala, neure makulu eta guzti gibela zer koloretakoa duen ikusi behar dut eta.	133
mardul gizena, potoloa	Bat-batean, gizon mardul batek upelaren kontra jarri zuen sorbalda.	56
marmar egin ahapeka kritikatu	Marmar egin zuen, edo, hobeto esanda, zaunka...	119
masta belaontzietako haga	Gero apurka apurka mastak eta kroskoa agertu ziren...	111
matxino erreboltatu dena, agintarien aurk	...itsasontzian geratu ziren sei matxinoei eraso egin, aingura jaso eta itsaso zabalera joko genuen.	81
mirespenez txundituta, guztiz harrituta	...oihu egin zuen beste ahots batek, itsasontziko marinelik gazteenarenak, mirespenez .	57
motots ile multzotua	...larruazal beltzarana zuen, eta sorbaldetarainoko mototsa zeraman kasaka urdinaren gainean.	13
muino mendi gaina, zapal antzekoa	Txistu-hotsa entzun zen muinoan .	30
murgildu urperatu, must egin	Azalera atera zen, apar eta odolezko zurrumbilo batean; baina berriz murgildu zen...	125
mutina matxinada	Mutina gainean genuen, ekaitza balitz bezala.	68
nerabe gaztetxo (<i>adolescente</i>)	1881eko goiz euritsu batean, Loyd Ousborne, hamahiru urteko nerabe egonezin eta pinturazalea, uharte baten marrazkia akuarelaz margotzen ari zen.	7
neskame zerbitzaria, otseina	Neskameak esan zigunez, Trelawney lur-jabearen etxera joan zen afaltzera eta gaua pasatzera.	35
noraezean jitoan, alderrai	...nire bizitza osoan baino bizkorrago mugitu nintzen, noraezean joanez.	74
oholesi oholezko itxitura, babesteko	Oholesira bueltatzea eta nire balentria azaltzea baino ez nuen gogoan.	126
oihartzun durundia	...une hartan, eguzkia estaltzeko ordubete edo bi falta arren uharte osoak egin zuen orro kanoikada baten oihartzunez .	78
olana estaltzeko oihal sendoa, lona	Olana zuri eta ederra elurra edo zilarra bezain distiratsu ageri zen.	115
orbain ebakiondoa, zauri sendatu marka	Eskuak arrakalatuta eta orbainez beteta, eta azazkal beltzak eta apurtuak zituen...	13



orga gurdia	Jende, orga eta fardel askoren artean ibili nintzen eta, azkenean, aurkitu nuen tokia.	45
orro garrasia, marrua, makakorroa	Gero, beste bat entzun zen, eta, azkenean, amaierarik gabeko orro izugarria.	73
osteratxo bueltatxoa, paseotxoa	...kapitainak bere osteratxoa egin ondoren gosaltzeko.	19
pattar likore	Txerriki pixka bat jan eta edalontzi bat pattar edan ostean, hiru buruzagiak bazter batean bildu ziren...	96
penny zentimo	Eta zilarrezko lau penny emango zizkidala agindu zidan.	16
pikotxa pikatxoa (lanabesa)	Hemen duzu pikotxa eta pala, Benjamin Gunn. Gera zaitez hemen, eta bilatu zeuk bakarrik Flinten altxorra.	78
porto ardo iluna eta gozo samarra	— Ardoa? Ados –esan nion—. Portoa ekarriko dizut, Hands jauna.	121
prestu formala, serioa	Rona edatearren ere ez nintzateke zu zoazen tokian sartuko, harik eta zure jaun prestu hori ikusi eta berak ohorezko hitza eman arte.	93
purrustadaka erremuskadaka, protesta keinuka	...labana gorde eta jarlekura itzuli zen purrustadaka , txakur makilatua bezala.	18
sable ezpataren antzekoa	Sable bat hartu eta argitara atera nintzen.	104
sastraka sasitza, landaretza pilaketa	...eta inguru hartan ugari hazten zen sastraka sendoak eta dunek estaltzen zuten...	108
senadi badia, abra	Biharamunean, agur egin nien amari, jaiotzatik bizi izan nintzen senadiari eta gure ostatu zahar eta maiteari...	44
soropil-hutsune belardia	Horren azpian, soropil-hutsune oso txikia zegoen...	108
suminduta amorratuta	Suminduta tiratzen zuen sokatik, eta, noizean behin, biratu.	150
susmoa izan irudipena edo aierua izan	... susmoa nuen gure ostatu zaharrean hain luzaro zelatan egonda ikusi nuen hanka bakarrek marinela ote zen.	46
suspertu biztu, animatu	Suspertzen ari zirela, lehengo ahotsa entzun zen berriz ere.	148
sustatu lagundu, sorrarazi	Harrezkero, belaunaldi askoren abentura-ametsak sustatu ditu eleberri honek.	8
tratua egin akordioa, hitzarmena	«Ondo», esan zuen sendagileak, « tratua egin behar dugu».	133?
triskantza txikizioa, birrinketa	Nolako triskantza aurkitu nuen; ez zarete gauza imajinatzeko ere!	34
txilibitu txistua	... txilibitua poltsikotik atera eta hainbat bider jo zuen.	74
txingar egur zati gorria	Gorria eta beroa zen eta, noizean behin, ilundu egiten zen, suaren txingarren moduan.	127
txopa popa, itsasontzien atzealdea	Darbi, ekarri rona txopara !	148
txundigarri zirrargarria, emoziozkoa	...eta abentura txundigarriak izaten nituen uharte bitxietan	41
uhindu olatu lekua	Inguru zingiratsua zeharkatuta nuen, eta leku ireki, uhindu eta hareatsuan agertu nintzen.	71
urkamendi urkatzea eta lekua (<i>horca</i>)	... urkamenditik ihes egite hutsa baino, eta bazekien gugandik ez zuela besterik lortuko.	144



urratu tarratatu, zarrastatu (indarka)	Sendagileak mahuka urratu zion, eta besaurrean, besteak beste, honako hitz hauek agertu ziren tatuatuta: “Billy Bones”.	22
uxatu aienatu, aldendu	Hurbildu ahala, diruaren pentsamenduak uxatu egin zituen ordura arteko beldurrak.	149
xarmagarri zoragarria, enkantua	Baso bat ron eskatu behar diot mutil xarmagarri honi...	21
xehetasun zehaztasuna (<i>detalle</i>)	...Livesey doktoreak Altxorraren uharteari buruzko xehetasun guztiak idatziz jartzeko eskatu zidaten...	13
zangomami berna, aztala, zangosagarra	...balak zango mamiko gihar batzuk baino ez zizkion urratu.	107
zerraldo hilda bezala	Zerraldo lo egin nuen, antza; izan ere, esnatu nintzenean, eraikin handi baten aurrean geunden.	44
zin promesa	...neure esku dagoen guztia egingo dut, gezurrezko zina izan ezik, zeure bizia salbatzeko.	72
zingira aintzira, padura	...handiago egiten ziren, zingiraraino heldu arte.	72
zirkinik egin zirkindu	Silverrek ez zuen zirkinik egin; besteei begira zegoen, eta beti bezain lasai ageri zen.	151
zital asmo gaiztokoa	Baietz zital horren amarruren bat izan!	97
zorigaiztoko dohakabea	Sendagilea bera ere zure kontra dago. « Zorigaiztoko doilorra» zinela esan zuen.	132
zorrotz zolia	Eta, orduan, bat-batean, oihu zorrotza atera zen iluntasunetik...	128
zuhur azkarra, burutsua	...mutil adoretsua eta zuhurra zara!	59
zurbil-zurbil margul, zuri, kolore gabe	Zurbil-zurbil geratu ziren sei itsaslapurrak...	147
zurrun gogortuta (<i>rígido</i>)	...ahoz gora zegoen, zurrun , besoak zabalik, gurutzearnak bezala...	117
zurrunga lotan zarata desatsegina, korroka	Hurbildu nintzenean, lasaitu egin nintzen: nire lagunak zurrungak , bake osoan lotan zeudela...	128
zurrutada tragoa	Zurrutada bat behar dut, arazoak datoz eta.	134
zuzia tortxa, lastargia	—Ekarri zuzia , Dick –esan zuen Silverrek.	128